# Bestelako Xedapenak

## INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

**866**

EBAZPENA, 2011ko urtarrilaren 24koa, Zerbitzu zuzendariarena, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egindako bi hitzarmenen laburpena argitara ematea xedatzen duena. Hitzarmen hauek erabilitako ontziak eta ontzien hondakinak kudeatzeko sistema integratuei buruzkoak dira.

Bilgarri eta bilgarrien hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatzeko eta ezartzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretuaren 9.bis.2 artikuluak zehazten du administrazio publikoek aldizkari ofizialetan ontziei buruzko hitzarmen eta akordio boluntarioen laburpenak argitaratuko dituztela, eta testu osoak jendearen eskura jarri behar direla.

Erabilitako ontziak eta ontzien hondakinak kudeatzeko sistema integratuei buruzko bi hitzarmen sinatu dira, eta aipatutako apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretuaren 9.bis.2 artikuluaren arabera,

EBATZI DUT:

***Lehenengo artikulua.***– Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak erabilitako ontziak eta ontzien hondakinak kudeatzeko sistema integratuei buruzko bi hitzarmenen laburpena Aldizkari Ofizialean argitara ematea, ebazpen honen eranskinetan atxikitzen den informazioarekin.

***Bigarren artikulua.***– Bi hitzarmen hauek eskuragarri daude ingurumen organoaren egoitza elektronikoan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urtarrilaren 24a.

Zerbitzu zuzendaria,
JOSÉ LUIS BARRENA MARTÍNEZ.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

**866**

RESOLUCIÓN de 24 de enero de 2011, del Director de Servicios por la que se dispone la publicación del extracto de dos Convenios marco suscritos por el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca en materia de Sistemas Integrados de Gestión de envases usados y residuos de envases.

El artículo 9.bis.2 del Real Decreto 782/1998, de 30 de abril, por el que se aprueba el Reglamento para el desarrollo y ejecución de la Ley 11/1997, de 24 de abril, de Envases y Residuos de Envases establece que las administraciones públicas publicarán en los diarios oficiales un extracto de los acuerdos voluntarios o convenios relativos a los envases y que dichos textos íntegros estén a disposición del público.

Habiéndose suscrito dos Convenios en materia de Sistemas Integrados de Gestión de envases usados y residuos de envases, de acuerdo con lo establecido en el mencionado artículo 9.bis.2 del Real Decreto 782/1998, de 30 de abril,

RESUELVO:

***Artículo primero.***– Proceder a la publicación del resumen de los dos Convenios suscritos por el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca en materia de Sistemas Integrados de Gestión de envases usados y residuos de envases, de conformidad con la información que se contiene en los anexos de la presente Resolución.

***Artículo segundo.***– Estos dos convenios están disponibles en la sede electrónica del órgano ambiental.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de enero de 2011.

El Director de Servicios,
JOSÉ LUIS BARRENA MARTÍNEZ.

I. ERANSKINA

Hitzarmenaren identifikazioa: esparru-hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Ecoembalajes España SA enpresak sustatutako kudeaketa-sistema integratuaren (Ecoembes) artekoa.

Sinatze-data: 2009ko martxoaren 17an.

Partaideak: Euskal Herriko Administrazioa eta Ecoembalajes España SA.

Indarraldia: 2014ko urtarrila 1era arte. Dena den, ezin da izango Ecoembes sozietateak kudeatzen duen ontzien hondakinen kudeaketa-sistema integratuari Autonomia Erkidegoak emandako baimenaren indarraldia baino luzeagoa.

Xede nagusiak:

– Ecoembes sozietateak bultzatutako kudeaketa-sistema integratuan beren borondatez parte hartu nahi duten toki-erakundeen edo partzuergoen jarduera arautzea.

– Hitzarmen honekin bat egiteko tresnak finkatzea. Eta paper-kartoizko ontzien gaikako bilketa monomaterialari dagokion edukiontziren bidez eta atez ate merkataritza gune handietan, plastikozko eta edarietarako kartoizko ontzien eta metalezko ontzien bilketa multimaterialari dagokion edukiontziaren bidez, eta ontziak, berreskuratzeko, birziklatzeko eta/edo balioztatzeko sistemak sustatzea, gizartearen onarpena, eraginkortasun teknikoa eta ingurumen eta ekonomia aldetik duten bideragarritasuna irizpidetzat hartuta. Ontziak birziklatzeko eta balioztatzeko beste motak sortzen ba dira, Toki-erakundeak eta Ecoembes arteko hitzarmenak izenpetu daiteke.

ANEXO I

Identificación del Convenio: Convenio marco entre la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Sistema Integrado de gestión promovido por Ecoembalajes España, S.A. (Ecoembes).

Fecha de suscripción: 17 de marzo de 2009.

Partes firmantes: Comunidad Autónoma del País Vasco y Ecoembalajes España, S.A.

Vigencia: hasta el 1 de enero de 2014. En cualquier caso, no podrá superar la vigencia de la Autorización concedida por la Comunidad Autónoma al Sistema Integrado de Gestión de residuos de envases del cual Ecoembes es entidad gestora.

Objetos principales:

– Regular la participación voluntaria de las Entidades locales o Consorcios en el Sistema Integrado de Gestión promovido por Ecoembes.

– Promover el desarrollo de sistemas de recogida selectiva monomaterial de envases de papel-cartón vía contenedor específico y sistemas puerta a puerta en zonas de alta densidad comercial, de sistemas de recogida selectiva multimaterial de envases de plástico, cartón para bebidas y envases metálicos vía contenedor específico, de recuperación, reciclado y/o valorización con criterios de aceptación social, eficiencia técnica y viabilidad ambiental y económica, pudiéndose suscribir los acuerdos pertinentes entre Entidades Locales y Ecoembes para otras formas de recuperación y valorización de envases.

II. ERANSKINA

Hitzarmenaren identifikazioa: Euskal Autonomia Erkidegoan beirazko ontzi erabiliak eta ontzi-hondakinak kudeatzeko Euskal Herriko Administrazio Orokorraren eta Beirazko Ontziak Birziklatzeko Sozietate Ekologikoaren (Ecovidrio) arteko hitzarmena.

Sinatze-data: 2010eko uztailaren 27an.

Partaideak: Euskal Herriko Administrazio Orokorra eta Beirazko Ontziak Birziklatzeko Sozietate Ekologikoa (Ecovidrio).

Indarraldia: 2014ko azaroaren 25era arte.

Xede nagusiak:

– Ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legearen 5. artikuluan ezarritako hondakinak murriztu, birziklatu eta balioztatzeko helburuak beirazko ontzi-hondakin eta ontzi erabiliei dagokienez beteko direla bermatzeko beren gain hartu behar dituzten betebeharren eta lankidetza-mekanismoen irismen zehatza zehaztea.

– Toki-erakundeek Ecovidriok sustatutako beirazko ontzi-hondakin eta ontzi erabiliak Kudeatzeko Sistema Integratuan borondatez parte hartzea arautzea.

ANEXO II

Identificación del Convenio: Convenio entre la Administración General Del País Vasco y la Sociedad Ecológica para el Reciclado de los Envases de Vidrio (Ecovidrio) para la gestión de envases usados y residuos de envases de vidrio en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Fecha de suscripción: 27 de julio de 2010.

Partes firmantes: Administración General Del País Vasco y la Sociedad Ecológica para el Reciclado de los Envases de Vidrio (Ecovidrio).

Vigencia: hasta el 25 de noviembre de 2014.

Objetos principales:

– Determinar el alcance concreto de las obligaciones a asumir y de los mecanismos de colaboración para garantizar el cumplimiento de los objetivos de reducción, reciclado y valorización recogidos en el artículo 5 de la Ley 11/1997, de 24 de abril de Envases y Residuos de Envases, para los envases y residuos de envases de vidrio.

– Regular la participación voluntaria de las Entidades Locales en el Sistema Integrado de Gestión de envases y residuos de envases de vidrio promovido por Ecovidrio.